

Kamerungo ipar-mendebaldeko nekazari txikiak teknika zaharrak ari dira erabiltzen izurrite eta gaixotasunei aurre egiteko. Pestizida kimikoak, labur esanda, eskuragaitzak dira urruneko lurralde haietan, garestiak ere badira eta gaur egun badakigu ingurugiro eta osasunerako zer-nolako arriskuak dituzten. Askotan, tokian-tokirako garatutako metodoak dira nekazari txikiek duten irtenbide bakarra, baina horretarako, nork sustatua behar dute eta metodoak zientifikoki frogatu beharra dago.

Nekazari txiroen borroka

Artxibokoa

Bere artasoro txikian, Emergencia Ngwa-k intsektu luze eta arre bat hartu du kontu handiz landare batetik. "Hauek landareak zulatzen dituzte" dio etsipenez begiratzen dion bitartean. "Asko daude gure soroetan" gehitu du. Zientzialariek *Coleoptera* deritzen intsektu hau lurrean bizi da, baina une batetik aurrera landarera igo eta zurtoina zulatzen hasten da. Landarea nano geratu eta uzta eskasa ematen du. Ngwaren modura artoa ereiten duten nekazarien etsai nagusia zurtoin-zulatzaille goseti hau da, askotan beranduegi denean sumatzen dena. Hori frogatzearren Ngwak, osasuntsu dirudien landare bat apurtu du eta, bertan ere, zurtoin-zulatzaillea agertu da. Arto-, artatxiki- edo basarto-uzta eskasa familia osoen hondamendia bilaka liteke Kamerungo hainbat lurraldetan.

Agian, pestezidak erabil ditzaketela pentsa genezake, baina horren ordez, Ngwa-k eta Kamerungo ipar-mendebaldeko probintzian dagoen Ndop herriko beste nekazariak arroz-azalak erretzen dituzte. Hauek, montzoi-garaia baino egun batzuk lehenago ereindako sailetan zabaltzen dituzte, jarrainan montzoiak ekarritako euriek errautsetako osagai basikoak lurperatu eta bertako zurtoin-zulatzailleak hil ditzaten.

Alboko herrixkan, Andrew Kule tabako-orriak lehortzen ari da. Berak, ordea, ez du tabakoa lantzen, barazkiak baizik, eta orain dituen tomate- eta aza-landareak izurritetatik babestuko dizkion nahastea prestatzen ari da. Tabako-orriak gau batez uretan bertzen jarri eta berotan xehetutako piper-hautsa gehitzen dio likidoa iluntzearren. "Nahastea oso gogorra da; landareak ihinzatu eta 24 ordurako ia

intsektu guztiak hilak daude", dio Kulek harrotasun apur batez.

Kule eta Ngwaren moduan, Afrikako zein garapen-bidean dagoen edozein herrialdetako milaka nekazariaren lurrrak eguneroko izurriteen aurkako borrokarako gudu-zelaiak direla esan daiteke. NBEko Elikadura eta Nekazaritzarako Erakundeak egindako balioespenen arabera, garapen-bidean dauden herrialdeetan ereindako lurren % 30 baino gehiago gaixotasun eta izurriteek hondatzen dituzte. Are gehiago, uztak bildu ondoren ere gal ditzakete.

Hala ere, pestezidak erabili ordez, nekazari txiro asko tokian-tokian sortu eta denborak balioztatutako metodoak erabiltzen dituzte izurriteak kontrolatzeko zein bildutako uzta kontserbatzeko. Horren arrazoiak hainbat dira. Batetik, pestezidak, askotan, esku-raezinak dira urruneko lurraldeotan.



Bestetik, eskuragarriak izan arren garestiegiak gerta daitezke. Azkenik, gaur egun nekazari askok badu pestizidak gehiegi erabiltzeak osasunerako eta ingurugirorako dituen arriskuen berri ere.

Irtenbide lokal hauek ez dira elikagai-landaketa edota izurriteetara mugatzen, nekazarien eguneroko jarduna baita euren uzta gordetzeko egin beharreko borroka ere. Adibidez, urruneko lurraldeetako nekazariak zailtasunak dituzte gertuen duten merkatarari edo merkatura iritsi bitartean eguneko esnea gordetzeko. Esne irakinak 48 ordu irauten du, gehienez, eta hori ez da nahikoa. Elektrizitaterik ez dutenez, hozketa-sistema edo pasteurizazioan pentsatu ere ezin dute egin. Baina hor daude Fulanis-ak, ganadu-zaintzaile nomadak. Hauek euren tradizioen bidez metatutako ezagutza eskaintzen diete esnea ekoizten duten

nekazariei. Ma`u Dannire fulanis-ak dioenez, esne-ekoizle guztiek, esnea irakiten ari denean *babaaho* deritzon iratze-zurtoina gehitu beharko liokete; "esneak lautik zazpira egun iraungo luke mindu gabe".

Njimbi herrixkako Sara Ngum-ek dioenez betidanik jasan izan dituzte uzta bildu ondorengo izurriteak. "Neure arazoa gurgurioak dira", dio. Gurgurioak akabatzeko duen modurik sinpleena, eguzkitan lehortzen jarritako artotan eukaliptu-hostoen geruzak jartzea da. Eukaliptu-olioak egingo du gainerako lana.

Bere bizilaguna den Florence Fru-k garatutako bertsioan, artoa, gehienetan banbuz egina dagoen sukaldeko sabaian lehortzen du. Berak altzifre-hostoak eta *nachaachor* deritzan landarea (biak intsektizida ezagunak) sukaldean erretzen ditu atekak itxita. Hostoek botatako kea sapaiko banbuaren arte-

tik irtengo da eta gurgurioak hil egingo ditu.

Nachaachora, *babaahoa*, arroz-hostoen hautsa, piper beroa,... guztiak Kamerungo nekazariak erabili eta gogoan dituzten teknika batzuk besterik ez dira. Hiefer Project International (HPI) gobernuz kanpoko erakundeko adituen arabera bertako teknika hauek 400dik gora dira.

HPIko Joseph Toyang-ek dioenez, egiten ari diren guztia informazioa bildu eta antolatzen saiatzea da. Gainera, pestiziden alternatiba gisa, norbera bere kasa moldatzea eta ustiaketa-tenketan indigenen ezagutza erabiltzea bultzatzen ari da. Bere iritzi, programaren arrakasta nekazarien partaidea, konfidantza eta lankidetzaren menpe dago.

Toyangen ustez indigenen jakituriak asko lagun dezake Kamerun eta antzeko lurraldeen garapen orokorrean,



J. Larranaga

bertan langile-populazioaren % 80 baino gehiago nekazaritzari lotuta baitago (ekonomia nazionalen bigarren jarduera da, petroliogintzaren ostean). Bestalde, garapen-bidean dauden beste lurraldeen gisa, Kamerunen jabetza txikiek dute sektorean erabateko nagusitza, plantazio zabalak (gehienak esportaziorako gaien landaketak) % 10 baino gutxiago direla eta.

FAOren arabera, herrialde industrializatuetan debekatuta edo zorrotz mugatuta dauden hainbat pestizida arriskuak garapen-bidean dauden herrialdeetara esportatu ohi dira oraindik ere. Nazio Batuen Erakundeko Ingurugiro Programak pestizida arriskutsuen ondorioz urtean milaka pertsona pozoitzen direla dio. Nekazari txikiek, askotan, produktu kimiko hauek eskuratu ere ezin dituzte egin.

Gainera, pestiziden merkatu orokorra oraindik ere emendatuz ari da; FAOren kalkuluen arabera, 30 mila milioi dolarreko irabaziak izan ziren 1996an. Europako mendebaldeko konpainiak dira munduko gai kimiko eta pestiziden ekoizle handienak, azkarren hazten ari diren merkatuak Latinoamerika eta Asian dauden bitartean. FAOK dioenez, Afrikan ere gero eta pestizida gehiago erabiltzen da esportaziora bideratutako plantazioetan. Toyangen iritziak, indigenen metodoak segurua goak izateaz gain, nekazaritzarako sail txikiak dituzten nekazari txiroek duten alternatiba bakarra dira askotan.



J. Larranaga

Badira, dena den, metodo hauen inguruan aipatu beharreko zenbait alderdi. Hainbat aditu kezkatuta dago, deforestazioaren edota gehiegizko erabilaren ondorioz indigenek baliatzen dituzten landare asko desagertze-arriskuan baitaude eta horren aurrean HPIk kontserbazio-lorategiak prestatu ditu landare hauek hazteko.

Bertakoek erabiltzen dituzten landareak, hala nola basa iratzeak, euren izen zientifikoak identifikatzeko beharra ere badago, batetik ezagutzaren eskuragarritasuna areagotzearen eta, bestetik, metodo hauek azterketa zientifikoaren bahetik pasatu eta sinesgarritasun handiagoa ematearren. Edonola ere, ezagumendua formula zientifiko zehatzekin "gehiegi arautuz" gero, nahasmena sortu eta nekazariengandik urrundu egingo litzatekeela ohartarazi du Emergencia Ngwak.

Izurri bilakatzen duen zenbait intsektuk kalte ikusgarriak eragiten dituzte, irudiko matxinsaltoaren kidea den langostak kasu. Beste zenbaitek, ordea, landareak barrutik kaltetzen dituzte; beheko irudiko *Hylobius*ak, esaterako, pinuei erasotzen die.

Adituen iritziak, honek lana ondo neurtea eskatzen du. Adibidez, indigenen izurrite-kontrolerako errezeten dosifikazio-zerrenda orokor bat egitea lagungarria izan daiteke, baina hori lortzea oso zaila da. Nekazari askorentzat, neurketak, "eskukada bat piper tabako-apur batekin nahastuta" esatea bezain zehatzak dira.

Era berean, HPIkoek tabakoa/piperra nahastea toxikoa dela eta elikagaien bidezko pozoiketara eragin dezakeela ohartarazi dute eta, beraz, nekazariari, euren barazkiak merkaturatu aurretik ondo garbitu behar dituztela azaldu zaie. Dosifikazioa finkatzeak errezetak neurritz erabiltzen lagundu beharko luke.



* NDOP, Kamerun (PANOS)